

44 ■ Gazteak literaturara erakarrit



Miren Agur Meaberen eta Mitxel Muruaren arabera, aldatu egin da gazteen literatura azken urteetan.



45 ■ Des-kontrol, atzera begira

Arrasateko musika taldeak azken 10 urteak bildu ditu disko batean eta DVD batean.

DURANGOKO 42. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Jende gutxi bildu du azokaren lehen egunak, baina gaurtik aurrera jende gehiago izatea espero da

JUAN LUIS ZABALA
Durango

Estutasunik gabeko hasiera lasaia izan zuen atzo Durangoko Azokak; lasaiegia aukeran, are triste antzekoa ere. Horrenbestez, kontuaren alde onari begiratuta, egun ezin egokiagoa izan zen Landako guneko kaleetan kokatutako erakusmahaiak aurten zer eskaintzen duten ikusi eta erosketak egiteko, hala berriak nola zaharretik, denetarikoa baita eskaintza.

Eguerdietan haur eta gazte txoeekin batera irakasleak ziren nagusi Landako gunearen barruko kaleetako ibiltarien artean. Arratsaldean, berriz, adin guztietako jendea ikusi zen, baina nola nahi ere oso jende gutxi, Durangoko Azokak normalean izaten duen jende emana kontuan hartuta. Iluntze aldean jende gehixeago izan zen, baina ez moteltasun irudipena uxatzeko lain.

Dena den, horren jende gutxi ikustea ez zuten kezagarritzat jo ez argitaletxe eta diskoetxeetako arduradunek eta ezta antolatzaileek ere, eta batek baino gehiagok gogoratu zuen izan dela azken urteetan antzeko egunik, ez dela atzokoa izan inoizko egunik makalena Durangon.

KEZKARAKO MOTIBORIK EZ. Atzo horren jende gutxi izatearen arrazoiak aztertzean bat zetozen gehienak: azokaren aurreneko eguneko eguerdiarteaz geroztik izaten zen lehen, eta arratsalde profesionalentzat; orain ez du halako definizio zehatzik egunak, baina, definiziorik gabe ere, orduko joerari jarraitzen dio neurri handi batean. Oraindik ere aurreneko eguna gaztetxoentzat eta profesionalentzat baino ez dela uste dute Durangoko Azokaren ohiko bisitari askok, edo zailantza dute gutxienez, eta urteroko bisita beste egun baterako uzte erabakitzen dute ondorioz.

Horretaz gain, astegun buruzuria zen atzo, eta jakinekoea da jai eta zubi egunak direla Durangoko Azokan jendetsuenak. «Gaurkoa, asteburu luze baten atarikoak izaki, lan egin eta despentsa betetzeko eguna da jende askorentzat», zioen editore batek.

Eusko Jaurilaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak irakurketa sustatzeko kanpainaren barruan antolatu duen argazki



Goizean eskolaumeak izan ziren nagusi azokan, baina arratsan jende gutxi batu zen Landakon. MARISOL RAMIREZ / ARGIAZHI PRESS

Hasiera motela

lehiaketako sarien banaketa izan zen lehen ekitaldi ofiziala. Ondoren, eguerdian, Oleaktif DJak girotu zuen azoka, sarrera nagusian binilozko diskoei aurrera eta atzera eraginez.

Haurrak eta gaztetxoak izan

ziren nagusi azokaren aurreneko ordu horietan. Diskoei eta bideo jokoei erreparatu zieten haietako askok liburuei baino gehiago, baina haur eta gazte literaturako liburu batzuen salmentarako ere une egokia izan zen.

Oro har, editoreen esanetan, gaztetxo gehienak liburuak eta diskoak erosteko dirua eraman zuten atzoko bisitan, eta gutxi geratu ziren ezer erosi gabe.

Azokatik kanpo ere dirua gastatu zutela utzi zuen agerian kanpo-

■ gaurko egitaraua

- **10:45:** Eskulana: Liburu erraldoia sortuko dute. Haur literatura aretoan.
- **11:45:** Ipuin kontalaria. Ixabel Millet. *Martin Txiki eta Marizikin herri ipuinak*. Haur literatura aretoan.
- **12:30:** *Oroimenaren lupa* Fredi, Xabier eta Itxaso Paia neba-arrebek eta Unai Elorriaga idazleak egindako bertso musikatuak ikuskizun berria.
- **13:00:** Asmakizunak (lehiaketa). Haur literatura aretoan.
- **14:00:** Irakurketa libre. Haur literatura aretoan.
- **15:00:** Eskulana: Liburu erraldoia sortuko dute. Haur literatura aretoan.
- **16:00:** Aurkezpena: *Ametsetako hitzak*. Elkartegian.
- **16:30:** Ipuin kontalaria. Ixabel Millet. *Martin Txiki eta Marizikin herri ipuinak*. Haur literatura aretoan.
- **17:00:** Laster Master. *Inkomunikazio ikastaro azkarra* Zazpiak Batman kolektiboaren (Kike Amonariz, Asisko Urmene-ta eta Antton Olariaga) azken emanaldia. Elkartegian.
- **18:00:** Mahai-ingurua. *Egunkariaren auzia*. Elkartegian.
- **18:00:** Liburuaren aurkezpena edo bideo emanaldia. Haur literatura aretoan.
- **19:00:** Irakurketa libre. Haur literatura aretoan.
- **20:30:** Antzerki estreinaldia. *Sommer jaunaren istorioak*. Txalo produkzioak. San Agustin kultur gunean.

aldean utzi zuten arrastoak: Plateruenaren atariko tximinia zahar-raren ondoko zaborrontziak gainezka, eta zorua plastikozko zorroz eta botilaz, edari lataz eta gisa askotako paperez beteta.

Txikienetako batzuek Barbaro

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)



EGITARAUA

Oroimenaren lupa
Bertso musikatuak · Estreinaldia

12:30

Laster Master
Zazpiak Batman · Azken emanaldia

17:00

Sommer jaunaren istorioak
Estreinaldia

20:30